



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2018ko lehen hiruhilekoa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	3
Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	7
Euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	13
Eranskina – Indizeak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- EAEko familiek konfiantza azaldu dute, baina oraindik ez daude baikor
- Estatuko eta EBko familietako konfiantzarekin lerrokatuta dago
- Frantzia eta Erresuma Batua negatiboan, eta Alemania positiboan



1 EAEko familiek konfiantza azaldu dute, baina oraindik ez daude baikor

2018ko lehen hiruhilekoko datuek agerian uzten dutenez, EAEko familien konfiantza-balioak azken hiru hiruhilekoetako antzekoak dira: alde batetik, positiboa da; bestalde, aldiz, aurreko balioa ia erabat errepikatu duela esan dezakegu. Azken finean, eta nolabaiteko perspektiba hartuta, EAEko familien konfiantza 2017ko bigarren hiruhilekoan hasitako suspertze-prozesuan dago oraindik ere eta emaitza positiboa sendotzen ari da.

Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da urteko lehen hiruhilekoak (gehienetan) ez duela urteko balio onena erakusten, baina oraingoan, 2018ko lehen hiruhilekoa datu positiboekin hasi da lau urteotan lehen aldiz, eta 2017ko (-3) eta 2016ko (-7) data berberetako baina nabarmen hobea da.




2 | Estatuko eta EBko familietako konfiantzarekin lerrokatuta dago

2018ko I. hiruhilekoan, Estatuko eta EBko familietako konfiantza zertxobait hobetu da, eta neutroa dela esan dezakegu. Estatuko familien artean, indizearen emaitza positiboa da (1) 2017ko IV. hiruhilekoan izandako atzerakada txikiaren ondoren, eta berriro ere 2017. urtearen aurreko hiruhilekoetako antzeko balioetara itzuli da.

Europako familiek hobekuntzako profil leuna eta jarraitua erakutsi dute emaitza neutroarekin (0), baina hiruhilekoz hiruhileko balio negatiboak gainditu dituztela esan nahi du horrek.

Datuak osotasunean hartuta, EAEko familien konfiantza, 2018ko lehen hiruhilekoan, Estatuko eta EB-28ko familietan izandakoaren antzekoa izan da.



* EB-28ren eta Espainiaren 2017ko IV hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkie.


3 | Frantzia eta Erresuma Batua negatiboan, eta Alemania positiboan

Frantziako, Erresuma Batuko eta Alemaniako familien konfiantzak izandako bilakaerak azken lau hiruhilekoetako joera sendotu du. Alde batetik, Alemaniako familiek konfiantza pixkanaka berreskuratzeko joerari eutsi diote (+7, ehuneko +1 puntu) eta 2018a azken urteko datu onenarekin hasi dute aztertutako gainerako familiekin alderatuta.

Emaitza horren aurrean, Frantziako (-4, ehuneko + 2 puntu) eta Erresuma Batuko (-6, ehuneko 0 puntu) familiek aurreko hiruhilekoetako profil negatiboari eutsi diote. Bi kasu horietan, familiek zertxobait ezkor jarraitzen dute, eta ez da hobekuntzako aztarnarik hauteman.

Urteko lehen hiruhileko honetan, EAEko familien konfiantzak Erresuma Batuko eta Frantziako familiaena gainditu du, baina Alemaniako familiek adierazitakoa baino txikiagoa da.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuari eta Alemaniaren 2017ko IV hiruhileko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkie..

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN OSAGAIK

- EAEko familiak baikor daude ekonomia orokorrari dagokionez
- eta enpleguaren bilakaerari buruzko igurikimena hobetu dute
- uzkur jarraitzen dute haien familiako ekonomia suspertzeari dagokionez
- eta aurrezko gaitasunarekin lotuta, ezkor jarraitzen dute
- EAEko familiek konfiantza agertu dute, baina oraindik ez dira baikorrak


4 EAEko familiak baikor daude ekonomia orokorrari dagokionez

EAEko familiak ekonomia orokorraren egoeraren inguruko igurikimen baikorra mantendu dute eta 2018a balorazio positiboarekin (5) hasiko dute. Dena den, aurreko hiruhilekoetan izandakoa baino txikiagoa da mailaz maila (12, 9 eta 6 hurrenez hurren).

Indizearen balioak erakusten du hurrengo hamabi hilabeteotarako familiak egindako balorazioa, eta baliteke hobekuntza dagoeneko gertatu dela dioten hautematea erakusten hasi izana. Hala, bi familiatik batek uste du ekonomia orokorrak berdin jarraituko duela (% 50, ehuneko -4 puntu), lautik batek baino zertxobait gehiagok uste du hobetzen jarraituko duela (% 28, ehuneko -2 puntu) eta bostetik batek baino zertxobait gutxiagok aurrez ikusi du bilakaera okerragoa izango dela (% 17, ehuneko -4 puntu).

Azkenik, eta indize horretan atzerakada txikia gertatu den arren, ekonomia orokorrari dagokionez, EAEko familien konfiantzak azken hiru urteotan ikusitako balio altuenak ditu, eta 2017ko (-3), 2016ko (-8) eta 2015eko (-11) lehen hiruhilekotan izandakoa baino nabarmen hobea da.


Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak



5 | eta enpleguaren bilakaerari buruzko igurikimena hobetu dute

Enplegua da EAEko familiek igurikimen onenak erakutsi dituzten adierazlea: 2018ko lehen hiruhilekoan, balio positiboa (12) izan du eta nabarmen hobetu da aurreko hiru hiruhilekoekin alderatuta. Horrek 2017ko bigarren hiruhilekoan (23) izandako aparteko datuarekin alderatuta susperraldi argiko segida erakusten du.


Aurreko datuak kontuan hartuta, EAEko familien kasuan, hamabi hiruhilekotan jarraian enpleguaren igurikimena nabarmen izan da positiboa eta, gainera, azken hiru urteotan erregistratutako lehen hiruhilekoko datu onena da (-3, +1 eta +10 2015ean, 2016an eta 2017an hurrenez hurren).



6 | uzkur jarraitzen dute haien familiako ekonomia suspertzeari dagokionez

Familiako ekonomiarekin eta enpleguarekin lotuta EAEko familien konfiantzan hobekuntzak izan diren arren, familiaren ekonomiaren bilakaerari lotutako igurikimena jasotzen duen adierazlea oraindik ere balio negatiboetan (-6) dago, eta zertxobait okertu egin da (ehuneko -2 puntu) gainera.

Grafikoan ikus dezakegun moduan, hobetzea kostatu egiten zaio adierazle horri eta etengabe negatiboa den profila erakusten du nahiz eta gorakadak eta beherakadak izan, baina familien konfiantza-gabeziak bere horretan jarraitzen du. Aldiz, nabarmendu beharrekoa da lehen hiruhileko batean izandako emaitza onena dela, nahiz eta negatiboa izan.




7 | eta aurrezko gaitasunarekin lotuta, ezkor jarraitzen dute

EAEko familien aurrezki-igurikimenen indizea balio negatiboetan (-10) dago oraindik ere eta, gainera, zertxobait okertu egin da aurreko hiruhilekoko datuekin (ehuneko -2 puntu) alderatuta.

Hala eta guztiz ere, azken hiru urteotako hirugarren balio onena da eta EAEko familien aurrezki-igurikimena oraindik ere ezkorra den arren (balio negatiboak), pixkanaka-pixkanaka, 2015ean (-16) eta 2016an (-12) lortutakoekin (urteko batezbestekoa) alderatuta, ezkortasun maila gutxitu egin dela ikus dezakegu, baina 2017ko datuekin alderatuta, aldiz, egonkortu egin da (-10).

Emaitza hori familiako ekonomiaren bilakaerarekin lotuta familiek agertutako konfiantzan lortutakoarekin bat dator. Izan ere, konfiantza hori oraindik ere negatiboa da (-6), baina aurrezkiarekin lotutakoa baino neurri txikiagoan.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak



8 EAEko familiek konfiantza agertu dute, baina oraindik ez dira baikorrak

EAEko familien igurikimenen emaitzak aztertutako esparru ugarietan bateratzen baditugu, 2018ko I. hiruhilekoan familien konfiantza-indizea balio positibotan (1) sendotu dela eta aurreko hiruhilekoko balio bera izan duela ikusiko dugu.

Itxuraz, EAEko familiek “zoru” posizioa sendotu egin dute eta neutro eta ezkortasunetik aldentuta mantentzen da, baina ez da baikortasunerako posizio argirantz abiatu.

Aztertutako lau indizeetako bi bloketan portaera ezberdina izan delako gertatu da emaitza hori. Alde batetik, “familiarik kanpo” dauden indizeak positiboak izan dira, eta hobetzeko joera erakusten dute. Ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko igurikimena (5) eta langabeziarekin (12) lotutakoa dira indize horiek.

Aldiz, “familia baitako bi indizeak oraindik ere negatiboak dira. Familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruko igurikimena (-6) eta aurrezkiarekin lotutakoa (-10) dira horiek.


Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE

Indizea	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>IIH-17</u>	<u>IIIH-17</u>	<u>IVH-17</u>	<u>IH-18</u>	<u>aldea</u>
Familien konfiantza	-6	-5	1	5	0,4	1	1	0
Ekonomia orokorra	-4	-7	6	12	9	6	5	-1
Etxeko ekonomia	-9	-5	-5	-3	-5	-4	-6	-2
Langabeziaren bilakaera	3	9	12	23	7	9	12	+3
Aurrezteko gaitasuna	-16	-12	-10	-12	-9	-8	-10	-2



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familiek inflazioak gora egingo duela uste dute
- erosketa-unearen balorazioa ez da aldatu eta oraindik ere negatiboa da
- pixkanaka, “erosketa handiak” egiteko igurikimena hobetu egin da
- eta etxebizitza edo autoa erosteko asmoa geldi dago (ez hazten hasi)
- EAEko familiak gelditu egin dira kontsumoaren susperraldiari dagokionez




9 | EAEko familiek inflazioak gora egingo duela uste dute

Bi familiatik batek uste du hurrengo urtean prezioak aurreko hamabi hilabeteetan bezala igoko direla (% 57). Ehuneko hori 6 puntutan igoko da aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta.

Bestalde, hiru familiatik batek uste du prezioak bizkorrago igoko direla datorren urtean. Ehuneko hori igo egin da azken hiru hiruhilekoetan. Eta, azkenik, gutxitu egin da prezioetan igoera mantsoagoa gertatuko dela aurrez ikusi duten familien taldea (% 17tik % 10era arte).

Hala, pertsonen iritziak bateratuta, hurrengo 12 hilabeteotarako prezioen bilakaeraren inguruko igurikimen-indizeak balio negatiboa (-24) sendotu eta azken hiru hiruhilekoetan ikusitako egoera handitu du.

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan?
(pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


10 | erosketa-unearen balorazioa ez da aldatu eta oraindik ere negatiboa da

Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...)?

Erosketako unearen helburua familiaren gastu-gaitasunaren inguruko gogoeta abiaraztea da (zer behar dudan, zer eskaintza dagoen, zer eros dezakedan...): 2018ko lehen hiruhilekoan, une ona dela uste duten familien proportzioa zertxobait jaitsi da (% 16, ehuneko -3 puntu). Uneak berdin direla uste duten familien taldea, aldiz, handitu (% 64, ehuneko + 4 puntu) eta egonkortu egin da une txarra dela uste dutenen proportzioa (% 20).

Erosketa-unearen balorazio-indizeak iritzi multzo hori jasotzen du eta negatiboa da (-5). 2017ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, beraz, atzerakada txikia izan du (ehuneko -3 puntu).

Erosteko unearen balorazioa¹
(pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteetarako


11 | pixkanaka, “erosketa handiak” egiteko igurikimena hobetu egin da

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familiek produktu mota horiek erostearekin lotutako igurikimenean susperraldi txikiko (baina mantsoko) profila erakusten dute. Hala, familian erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizea positiboa da (3; ehuneko +2 puntu) eta azken hamabi hiruhilekoetako bigarren emaitza onena izan da.

Emaitza horren oinarria antzeko erosketa-igurikimenearekin (% 63) eta garrantzia zertxobait galdu izanarekin (ehuneko -5 puntu) lotuta dago. Hori guztia gainditu egin du igo egingo direla aurrez ikusi dutenen taldeak (% 13, ehuneko +4 puntu). Azkenik, nabarmendu beharrekoa da erosketetan jaitziera izango dela aipatu duen taldearen egonkortasuna (% 21) eta aurreko hiruhilekoetako balio antzekoak edo zertxobait baxuagoak ditu (% 23, % 17 edo % 26).


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsoneen %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

12 | Eta etxebizitza edo autoa erosteko asmoa geldi dago (ez hazten hasi)

EAEko familien % 2,3k aipatu du datorren urtean etxebizitza erosteko asmoren bat duela. Ratio hori zertxobait igo da (ehuneko +0,4 puntu) 2017ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta 2017an lortutako batez besteko baliotik gertu kokatu da (% 2,8).



2016 (% 5,2) eta 2017 (% 6,0) urteek agerian utzi dute hurrengo 12 hilabeteotan autoa erosteko asmoa suspertu egin dela. 2018ko lehen hiruhilekoa nabarmen txikiagoa den balioarekin hasi da ordea (% 4,3) eta horrek agerian uzten du ibilgailua erosteko garaian indarra txikiagoa dela. Dena den, datua zuhurtziaz aztertu behar da uda aurreko hilabeteetan erosketek izan duten geldialdia dela eta.






13 | EAEko familiak gelditu egin dira kontsumoaren susperraldiari dagokionez

2018ko lehen hiruhilekoak agerian uzten du EAEko familiak balio negatibotan daudela prezioekin, eta erosketako eta inbertsioko erabakiekin lotutako indizeei dagokienez. Hala:

- Gorakada inflazionista. Urtearen hasieran, EAEko familiak prezioen bilakaeraren inguruan duten igurikimena nabarmen da negatiboa (-24) hurrengo hilabeteotan prezioen igoera bizkorragoa izango dela dioen iritziaren (zabalduena) ondorioz. Hala, 2018a nabarmen inflazionista den igurikimenarekin hasi da.
- (Zertxobait) okertu egin da erosteko uneari buruzko balorazioa. Bosgarren hiruhilekoz jarraian, EAEko familiak erosteko unearen inguruan egindako balorazioa negatiboa da (-5) eta 2017an lortutako balioetatik (-3) gertu dago oraindik ere. 2017ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta atzerakada txikia (-3) gertatu dela adierazten du horrek, baina, bestalde, balio neutroetarako gerturatzea sendotu du.
- Hobetu egin da erosketako igurikimena. Erosketak egitearekin lotuta EAEko familiak dituzten igurikimenak (-3) zertxobait hobetu dira urtearen hasieran. Oraindik ere balio negatibotan dauden arren, etengabeko hobekuntza-joera erakusten dute.


Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>II H-17</u>	<u>III H-17</u>	<u>IV H-17</u>	<u>I H-18</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	6	13	-17	-18	-6	-17	-24	-6	
Erosteko unearen balorazioa	-19	-8	-3	-3	-5	-2	-5	-3	
Erosketak egiteko igurikimenak	-12	-10	-7	-8	-2	-7	-3	3	

¹ 2014, CCaren neurriaren hasiera

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea
euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera
beste adierazle batzuk



I | laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2016	2017	II H-17	III H-17	IV H-17	I H-18	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-5	1	5	0,4	1	1	▶
• Estatua*	-4	-1	2	0	-2	1	▲
• EB*	-6	-3	-3	-2	-1	0	▶
○ Frantzia*	-14	-6	-5	-5	-6	-6	▶
○ Alemania*	-3	3	4	4	5	7	▶
○ Erresuma Batua*	-2	-6	-6	-6	-5	-4	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-7	6	12	9	6	5	▶
• Etxeko ekonomia	-5	-5	-3	-5	-4	-6	▶
• Langabezia	6	12	23	7	9	12	▲
• Aurrezkia	-12	-10	-12	-9	-8	-10	▶
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	13	-17	-18	-6	-17	-24	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-8	-2	-3	-5	-2	-5	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	-10	-7	-8	-2	-7	-3	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	3,0	2,2	1,3	1,5	1,2	▶
• Autoa	5,2	5,5	4,9	4,8	3,3	3,7	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarrila-otsaileko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2016	2017	II H-17	III H-17	IV H-17	I H-18	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-5	1	5	0,4	1,0	1	▶
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	-3	5	9	6	3	5	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-1	2	5	1	2	3	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	0	4	-1	2	1	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-12	-5	2	-7	-5	-9	▼
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)	1	6	9	6	5	6	▶
• Langabea	-18	-7	-1	-11	-5	-5	▶
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)	-9	-4	2	-6	-3	-6	▼
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-21	-14	-8	-14	-14	-16	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-4	2	4	0	3	1	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	7	15	20	16	10	13	▲

⇔ (± 2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	I H – 17	II H – 17	III H – 17	IV H – 17	I H – 18p	(azkena)
BPG	2,8	2,9	3,0	3,0	--	IV hir.
Familien kontsumoa	3,0	3,0	3,0	2,8	--	IV hir.
Afiliazioa	-0,4	1,3	-0,6	1,7	-0,4	otsaila
Erregistratutako langabezia	0,3	-2,6	-2,3	-2,6	-0,7	otsaila
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,0	1,3	1,1	-0,7	--	IV hir.
Etxebizitzaren salerosketa	31,5	-0,7	-10,6	-10,4	--	IV hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-7,0	10,8	-12,7	22,5	-5,5	otsaila

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzaren salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA - METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie.
- Otsailaren 12tik 24ra (2018ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm